

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

LAN ETA ENPLEGU SAILA

Arabako Lurralde Ordezkaritza

Transportes Ibarra SL enpresaren hitzarmen kolektiboa. Jundizko (Araba) industrialdeko lantokian salgaiak errepide bidez garraiatzeko zerbitzuetara atxikitako langileei aplikatu beharrekoa

Ebazpena, Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Arabako lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten Transportes Ibarra SL Jundizko (Araba) industrialdeko lantokia enpresarentzako hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea. Hitzarmenaren kodea: 01101301012024.

AURREKARIAK

Aurkeztu da, ordezkari honetan, negozioazio batzordeko enpresari ordezkariak eta ordezkari sozialek, sinatu zuten lan hitzarmen kolektiboaren testua.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24ko BOE) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritzari honi dagokio, urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuko 14.1.g artikulua –Lan eta Enplegu Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2021eko urtarrilaren 29ko EHAA)– dionarekin bat etorritik eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) – hitzarmen kolektiboak, lan-akordio kolektiboak eta berdintasun-planak erregistratzea eta gordailutzea.

Bigarrena. Sinatutako hitzarmen kolektiboak betetzen ditu lehen aipatutako Langileen Estatutu Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen eta Berdintasun Planen erregistroa eta enpresa Transportes Ibarra SL Jundizko (Araba) industrialdeko lantokia hitzarmen kolektiboa Arabako lurralde bulegoan erregistratu eta gordailatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 23a

Arabako lurralde ordezkaria

MARÍA VICTORIA PORTUGAL LLORENTE

**Transportes Ibarra SL enpresaren hitzarmen kolektiboa Jundizko
(Araba) industrialdeko lantokian salgaiak errepide bidez garraiatzeko
zerbitzuetara atxikitako langileei aplikatu beharrekoa**

I. kapitulua. Xedapen orokorrak

Hitzarmena adostu duten alderdiak:

Hitzarmen hau sinatu dute langileen ordezkariak, Jundizko (Araba) industrialdeko lantokiko langileek hautatutako legeko ordezkariak (ELAko kidea) eta Transportes Ibarra SL enpresako zuzendaritzak.

1. artikulua. Lurralde-eremua

Hitzarmen honen xedapenak Transportes Ibarra SA enpresaren Jundizko (Araba) industrialdeko lantokian aplikatuko dira.

2. artikulua. Langileen eremua

Hitzarmen honek Jundizko (Araba) industrialdeko lantokian salgaiak errepide bidez garraiatzeko zerbitzua ematen duten Transportes Ibarra enpresako langileei eragingo die.

3. artikulua. Eremu funtzionala

Hitzarmen honek Transportes Ibarra enpresaren eta aurrez aipatutako lantokiko langileen lan-harremanak arautzen ditu.

4. artikulua. Indarraldia, iraupena eta salaketa

Hitzarmen honek 3 urte iraungo du (2023, 2024 eta 2025).

Hitzarmena berau ALHAOn argitaratzen den datan jarriko da indarrean, lantokiko hitzarmenaren sinaduran aipatzen diren artikuluen kasuan salbu. Hala, indarrean jarraituko du, 2025eko abenduaren 31ra arte, baina ondore ekonomikoek 2023ko urtarrilaren 1etik izango dute atzerageragina.

Hitzarmen hau zuzenenean luzatuko da, beste akordio batek ordeztzen ez duen bitartean.

Hitzartutako indarraldia bukatu ondoren, hitzarmena modu automatikoan salatuko da, eta, orduan, alderdiek gehienez ere 3 hilabeteko epean hitzarmena berritzeko negoziazioak gauzatu beharko dituzte.

Berariaz hitzartzen da, Langileen Estatutuaren 86.3. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, hitzarmenak indarrean jarraituko duela salatu eta hitzartutako iraupena amaitu ostean, harik eta bi alderdiek hori ordeztuko duen beste bat sinatzen duten arte.

5. artikulua. Hitzarmen honetan itundutako lan-baldintzak ez aplikatzea

Enpresak ez badu aplikatu nahi hitzarmen kolektibo hau aldi batez (arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolaketakoak edo ekoizpenekoak direla eta), horren berri eman beharko dio Batzorde Paritarioari, Langileen Estatutuaren 82.3 artikuluan zehaztutako kontsulta-aldia hasi baino 60 egun lehenago, gutxienez. Kontsultaldian akordiorik lortzen ez bada langileen ordezkariekin, eta aplikatu beharreko lanbidearteko akordioetan gatazkak konpontzeko prozeduretara jota ere desadostasuna konpontzen ez bada (arbitrajea alderdi bakoitzaren gehiengoak esanbidez erabakitzen badu baino ez da egingo), beharrezkoa izango da bi alderdiak ados jartzea (enpresaren ordezkari eta langileen ordezkarien gehiengoak), ez aplikatzeari buruzko desadostasuna ORPRICC-en esku uzteko, edo, hala badagokio, Hitzarmen Kolektiboetarako Aholkularitza Batzorde Nazionalaren esku.

6. artikulua. Batzorde paritarioa

Batzorde paritario bat sortuko da, hitzarmenaren sinatzaileek osatua; gehienez 2 kide izango ditu: batek alderdi soziala ordezkatzeko du, eta besteak enpresarena. Batzorde horretako bi alderdietako edozeinek deialdia egiten badu, batzordea gehienez ere hamabost eguneko epean bildu beharko da.

Haren eskumenak izango dira:

A. Hitzarmen kolektibo honetako edozein arau interpretatzea.

B. Hitzarmen kolektibo honetan jasotako konpromisoak garatzea.

Esleitutako eskumenen ondorioz, batzorde paritarioa bilduko da edozein ordezkariaren heren batek (1/3) eskatzen duen guztietan. Batzordea elkartzeko, bilera egin baino gutxienez zazpi egun lehenago helarazi beharko da komunikazioa. Komunikazioarekin batera, beste idazki bat emango da, azaltzeko zer gai jorratuko den. Batzorde paritarioko langileen ordezkariak eta enpresa-ordezkariak gehienez 2 aholkulariren laguntza izan dezakete, zeinek hitza izango baitute, baina botorik ez. Edozein kidek izan dezake ordezkioa, baldin eta batzordeari aldezturik jakinarazi badio.

Batzorde paritarioaren erabakiek balioa izan dezaten, ordezkariak bakoitzaren botoen ehuneko 51k berretsi beharko ditu. Batzorde paritarioan desadostasunik sortuz gero, Lan Gatazkak Judizioz Kanpo Konpontzeari buruzko II. Akordioan (GEP II) arautzen den bitartekaritza-prozeduraren arabera ebaztuko dira (2000ko apirilaren 4ko EHAA).

7. artikulua. Zuzenbide osagarria

Hitzarmen honetan aurreikusi ez den orotan, Salgaien Errepide bidezko Garraioaren Sektoreko eta Arabako Garraio Agentzietako Probintzia Hitzarmen Kolektiboan (unean-unean indarrean den horretan) eta ordezkio lege-arauetan xedatutakoa beteko da.

II. kapitulua. Lan-araubidea**8. artikulua. Lanaldia**

Urtean 1.727 orduko lanaldia ezartzen da 2023. urterako. Hitzarmenaren indarraldirako 9 orduko jaitsiera progresiboa adostu da; zehazki: 5 ordukoa 2024an eta 4 ordukoa 2025ean. Ondorioz, 2024an, urteko lanaldia 1.722 ordukoa izango da, eta 2025ean, berriz, urteko 1.718 lanordukoa.

9. artikulua. Lanaldia zehaztea

Hitzarmena indarrean den bitartean lanaldiak zehazteko lantokian onartutako eta finkatutako lan-egutegiak kontuan hartuko dira.

Laneko ordutegia astero beteko da, astelehenetik ostiralera. Hala ere, enpresaren premien-gatik, larunbat goizean lan egitea erabaki ahalko da, langileen ordezkariari aurretik jakinarazita eta eragindakoekin ados jarrita. Larunbatetan lan egitea borondatezkoa izango da eta, nolanahi ere, txandaka egingo da.

Egutegia egokitzeko egunak ez ditu enpresak ezarriko. 2024 eta 2025erako, egutegia egokitzeko egun horien erdia langileek erabakiko dute.

Lan-egutegian jaiegunetan lan egiten bada, langileen legezko ordezkariarekin adostuta, konpentsazio ekonomikoa eta egun librea emango dira. Egun librea hautatzerakoan ezingo dira sail bereko bi pertsona baino gehiago aldi berean metatu, kontraktorik adostu ezean.

10. artikulua. Aldi baterako laneko enpresak

Enpresek hitz ematen dute aldi baterako laneko enpresen bidez kontratatutako langileak ez direla izango lantokiko plantilla guztiaren ehuneko 15 baino gehiago.

III. kapitulua. Baldintza ekonomikoak

11. artikulua. Oinarrizko soldata

Hitzarmenaren oinarrizko soldata kategoria profesional bakoitzerako agertzen dena izango da, hots, soldataren eranskinetako zutabeaz azaltzen dena.

12. artikulua. Errendimendu-saria

Errendimendu-saria erantsitako soldata-tauletan kategoria profesional bakoitzerako agertzen dena izango da, zehaztutako zenbatekoan.

13. artikulua. Antzinasuna

Antzinasunaren ziozko saria hitzarmeneko soldata-taulen lehen zutabeaz agertzen diren ordainsarien (oinarrizko soldaten) gainean ordainduko da.

Hitzarmen honen aplikazio-eremuaren eraginpeko langileek oinarrizko soldataren gaineko ehuneko 5eko aldizkako igoera izango dute enpresa berean lanean emandako bosturteko bakoitzeko, honako taula honen arabera.

14. artikulua. Aparteko ordainsariak

Hitzarmen honetan aparteko bi ordainsari ezartzen dira, uztailean eta abenduan, lanbide-kategoria bakoitzerako soldata-tauletan ezartzen den zenbatekoan, antzinasunaren eta osagarri pertsonalaren (hala badagokio) kontzeptuak gehituta.

Langilea urtean zehar sartzen bada lanera, lan egindako denborari dagokion zati proportzionala ordainduko zaio.

15. artikulua. Mozkinen ordainketa

Mozkinetan egindako partaidetzaren zioz enpresek hobaria ordainduko dute, honela: soldata-tauletan finkatutako kopurua, gehi enpresan emandako antzinasunari eta osagarri pertsonalari, hala badagokio, dagokiona.

Langilea urtean zehar sartzen bada lanera, lan egindako denborari dagokion zati proportzionala ordainduko zaio.

16. artikulua. Larunbateko plusa

Larunbatean lan egiteagatik plusa 185,00 euro gordinetako izango da pertsonako eta eguneko, lanaldi osoan, 2023an.

Zenbateko hori lehen urtean ordainduko da, hau da, 2023an, baldintzarik gabe.

Hurrengo urteetan, hau da, 2024tik aurrera, lehen aipatutako zenbatekoa eguneratu egingo da, oro har itundutako soldata-igoera bezala, baldin eta enpresaren eskakizunak bete badira aurreaurreko urtean eskatutako egunen ehuneko 75ean.

2024an igoera ehuneko 4,60koa izan denez, larunbateko plusa 193,51 eurokoa izango da.

17. artikulua. Jaiegun-plusa

Lan-egutegian lan egindako jaiegunen konpentsazio ekonomikoa 185,00 euro gordinetako izango da pertsonako eta eguneko, lanaldi osoan, 2023an. Aipatutako zenbatekoa oro har itundutako soldata-igoera bezala eguneratuko da.

2024an igoera ehuneko 4,60koa izan denez, larunbateko plusa 193,51 eurokoa izango da.

18. artikulua. Oinetakoengatik plusa

Bere oinetako propioa erostea erabakitzen duen langileak 30,00 euroko konpentsazioa jasoko du 2023an. Zenbateko hori 2024an eta 2025ean eguneratu egingo da, itundutako soldata-igoeraren arabera.

2024an igoera ehuneko 4,60koa izan denez, oinetakoengatik plusa 31,38 eurokoa izango da.

19. artikulua. Eskorga-gidariaren plusa

Eskorga-gidariaren baimena berritzeko prestakuntza-ikastaroak Gaitasun Profesionaleko Ziurtagiria (GPZ) berritzeko prestakuntza-ikastaroen baldintza berberetan egingo dira.

Enpresak eskorga-gidariaren baimena berritzeko bitartekoak jarri ahalko ditu langileen esku.

IV. kapitulua. Eskubideak eta lan-baldintzen aldaketa nabarmenak

20. artikulua. Baimen berreskuragarriak

Urtean 8 orduko baimena hartu ahalko da norbere gauzetarako, berreskuratu egin ahalko dena. Egun horiek hartzeko ez da nahitaezkoa izango 48 ordu lehenago eskatzea, baldin eta seme-alaba adingabeekin edo guraso gaixoeekin lotutako egoerak artatzeko bada.

21. artikulua. Lan baldintzen funtsezko aldaketak

Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 41. artikuluan araututako lan-baldintzen funtsezko aldaketa egiteko, beharrezkoa izango da ukitutako langilearekin (banakako aldaketak) nahiz langileen ordezkari-tzarekin (aldaketa kolektiboak) adostasuna lortzea. Bestela, ezingo da funtsezko aldaketarik egin.

Xedapen gehigarria

Honako hau izango da hitzarmen honen indarraldiko hiru urteetako bakoitzerako soldata-igoera:

2023. urtea: soldata-taula propioak ezartzen dira, egungo soldatekin (2022ko irailean igo ziren). Taula horietako oinarritzko soldataren barruan ordura arte “hitzarmenaren kontura” izena izan zuen kontzeptua sartu da, 2023ko irailean desagertu zena.

2024. urtea: ehuneko 4,60ko soldata-igoera 2023ko soldata-taulen gainean, 2024ko urtarri-leko nominan aplikagarria. 2023. urteko KPI ehuneko 4,60 baino altuagoa bada, taulak ehuneko horretan eguneratuko dira, 2024ko martxoaren 31 baino lehen, urte horretako urtarritetik aurrerako ondoreekin eta, beraz, dagozkion atzerapenak ordainduta.

2025. urtea: ehuneko 4,60ko soldata-igoera 2024ko soldata-taulen gainean, 2025eko urtarri-leko nominan aplikagarria. 2024. urteko KPI ehuneko 4,60 baino altuagoa bada, taulak ehuneko horretan eguneratuko dira, 2025eko martxoaren 31 baino lehen, urte horretako urtarritetik aurrerako ondoreekin eta, beraz, dagozkion atzerapenak ordainduta.

2023. URTEKO SOLDATA-TAULAK					
	KATEGORIAK	OINARRIZKO SOLDATA	ERREND. SARIA	APARTEKO ORDAINSARIAK	GORDINA URTEAN
Garraio-agentziako langileak	Langile espezializatua	1.121,18	305,71	1.210,69	20.754,75
	Estatu-mailako gidaria	1.235,00	363,97	1.357,81	23.261,07
Garraioko langileak salgai	Eskualde mailako gidaria	1.183,96	349,40	1.319,31	22.358,25
	Toki mailako gidaria	1.177,70	334,85	1.301,36	22.054,68
Administrazio-langileak	Lehen mailako ofiziala	1.297,17	334,81	1.321,43	23.548,05
	2. mailako ofiziala	1.245,24	320,27	1.268,53	22.591,71

2024. URTEKO SOLDATA-TAULAK					
	KATEGORIAK	OINARRIZKO SOLDATA	ERREND. SARIA	APARTEKO ORDAINSARIAK	GORDINA URTEAN
Garraio-agentziako langileak	Langile espezializatua	1.172,75	319,77	1.492,53	22.387,90
	Estatu-mailako gidaria	1.291,81	380,71	1.672,52	25.087,84
Garraioko langileak salgai	Eskualde mailako gidaria	1.238,42	365,47	1.603,89	24.058,42
	Toki mailako gidaria	1.231,87	350,25	1.582,13	23.731,91
Administrazio-langileak	Lehen mailako ofiziala	1.356,84	350,21	1.707,05	25.605,77
	2. mailako ofiziala	1.302,52	335,00	1.637,52	24.562,85